

Ariketa:

1966. urtetik 1985. urterarteko ondorengo aldagaien urteroko denborazko serieak eskuragarri dira¹:

r	Urtearen azkenean dagoen deskontu-tasa, NY-ko Erreserba Federala
M	Moneta eskaintza M2
Y	Nazio Produktu Gordina, 1982ko dolarretan

1. Moneta eskaintza azaltzeko zehaztu den lehen eredua honakoa da:

$$M_t = \beta_1 + \beta_2 Y_t + u_t \quad (1)$$

Interpreta itzazu ereduko koefizienteak.

2. Estima ezazu eredua Karratu Txikiaren Arrunten bidez. Komenta itzazu lortutako emaitzak: doikuntza, esanguratasunak eta koefiziente estimatuen zeinuak. Arrazoi ezazu emaitzen egokitasuna.
3. Irudikatu eta interpreta itzazu ondorengo grafikoak:
 - KTAko hondarrak denboran zehar.
 - Aldagai azalduaren benetako eta estimatutako balioak denboran zehar.
4. Irudika ezazu KTAko hondarrak erregresioa barneratu gabe gelditu den aldagai azaltzailearekiko (r , deskontu-tasa). Komenta ezazu lortutako grafikoa.
5. Burutu ezazu Engle-n kontrastea teknologia indizea barneratzeak merezi duen jakiteko.
6. Deskontu-tasa barneratzen duen eredu bat zehaztea kontsideratu da:

$$M_t = \beta_1 + \beta_2 Y_t + \beta_3 r_t + u_t \quad (2)$$

- a) Interpreta itzazu estimatutako koefizienteak.
- b) Kontrasta itzazu aldagai azaltzaileen esanguratasunak. Lortutako emaitzak Engle-n kontrastean lortutakoarekin bat datoz?
- c) Konpara itzazu (1) eta (2) ereduen estimazio emaitzak. Zein deritzozu egokiena? Arrazoi ezazu zure erantzuna egokiak direla deritzozun irizpide guztiak kontuan hartuz.

¹Datu-fitxategia: greene10-3.gdt. Iturria: William Greene, *Econometrics Analysis*, 5. edizioa (Prentice Hall, 2003).